

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO EKAINAREN 11AN EGINDAKO OHIZKANPOKO ETA
PREMAZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Mikel Errazkin Agirrezabala
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Garikoitz Lekuona Izeta

AZTERGAIK:

- 1.-Azken bilkuretako akten onarpena. 2003ko maiatzaren 23ko ohizkanpoko eta ezohizko bilkurei dagozkien aktak.
- 2.-Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 237 zbkia.tik 271 zbk.ra.
- 3.-Garikoitz Lekuona Izeta Administrazio Bereziko Teknikaria eta Idazkari-Kontuhartzaile akzidentala izendapenaren berri ematea.
- 4.-Sustapen Pribatuko babes ofizialeko 58 etxebizitzaren sorketa dela eta aurkeztutako alegazioen aurrean Alkatetzak gutun bidez luzatutako erantzunak berrestea.

Anoetako Udaletxean, bi mila eta hiruko ekainaren hamaikan, arratsaldeko zazpi terdiak direnean, Udal-Batzarra bildu da, Ezohiko eta Premiazko Bilkura egiteko asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Garikoitz Lekuona Izeta, Udal honetan Bitarteko Idazkari bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-Azken bilkuretako akten onarpena. 2003ko maiatzaren 23ko ohizkanpoko eta ezohizko bilkurei dagozkien aktak.

Osoko Bilkuran daudenek, ahobatez onartu dute.

2.-Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 237 zbkia.tik 271 zbk.ra.

Besteri gabe aipatutako Dekretuen berri ematen da.

3.-Garikoitz Lekuona Izeta Administrazio Bereziko Teknikaria eta Idazkari-Kontuhartzaile akzidentala izendapenaren berri ematea.

Alkateak izendapenaren berri eman du, eta Osoko Bilkuran daudenek ahobatez onartu dute.

Izendapen Dekretuan azaltzen den lez, aurreko idazkari akzidentala, lan eskeintza berri bat tarteko, joan da eta Foru Aldundiak izendapen berria egin bitartean Garikoitz izendatzen da Idazkari akzidental bezela, batez ere larunbatean, ekainak 14, ospatuko den Anoetako udal eraketari begira.

4.-Sustapen Pribatuko babes ofizialeko 58 etxebizitzaren sorketa dela eta aurkeztutako alegazioen aurrean Alkatetzak gutun bidez luzatutako erantzunak berrestea.

Pleguetan azaltzen ziren betebeharren artean “erroldatua egotearen beharra” aipatzen zen, denbora jakin batez, jarraian, erroldatua egon beharrari erreferentzi eginez. Betebehar honen inguruan sortutako gaizki ulertzeak direla eta, eta ondorioz aurkeztutako alegazioei erantzuten, Alkateak gutun bidez eman ziren erantzuna aipatutako alegazioei zeinetan jakitera ematen zitzaien “denbora jakin batez eta **jarraian**, ez intermitenteki, erroldatua egotearen beharra”.

Osoko Bilkuran daudenek, ahobatez onartu dute.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta berrogeitamar direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

O.E

ALKATEA

IDAZKARIA AZZ.